



AZAROAK 25 PEGATINETARAKO ILUSTRAZIO LEHIAKETA

Eguesibarko Udaleko Berdintasun Alorrak Pegatinetarako Ilustrazio Lehiaketa baterako deia egin du, **Haur Hezkuntza Zerbitzuarekin** elkarlanean, Emakumearen kontrako Indarkeria Ezabatze Nazioarteko Egunerako

Helburua indarkeriari aurrea hartzea da, eta horrekin batera, berdintasunezko tratua aldeko sentsibilizazioa egitea eta, ilustrazioen bidez, gizonen eta emakumeen arteko tratua on eta berdintasun kontzeptuak transmititzea.

1. Gaia

Ilustrazioek islatuko dituzten jarrerak zerikusia izaten ahalko dute tratua onekin, errespetuarekin, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin, eta/edo indarkeria ezabatzearekin. Halaber, bazterketa egoerak erakutsi eta salatzen ahalko dira. Ez da onartuko pertsonen osotasuna kaltetzen duen irudirik.

2. Parte-hartzaileak

Kategoria bakarra dago, hots, 6 eta 11 urte artekoak.

3. Ilustrazioen ezaugarri teknikoak

Ilustrazioak paperean onartuko dira, gehienez A4 neurrikoak, bai eta formatu digitalean ere. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez 3 ilustrazio aurkeztuko ditu.

4. Izen-ematea

Izena emateko, aski duzu zure ilustrazioak bidaltzea. Ilustrazioek argitaragabeak izan beharko dute, hau da, ez argitaratuak eta ez beste lehiaketa batzuetan aurkeztutakoak. Ilustrazioen izenburuek hizkera barneratzailea eta errespetuzkoa erabili beharko dute. Ez dira kontuan hartuko irudiak, baldin eta izenburuek baldintza hori betetzen ez badute.

5. Lanak aurkezteko epea

Ilustrazioak aurkezteko epea azaroaren 20an bukatuko da. Ilustrazioak FAZe an aurkeztu ditzakezu edota helbide elektronikoa hauetako batera bidali:

- igualdadberdintasuna@egues.es
- infanciaf@egues.es

Bi kasuetan, man postan zure datu pertsonal: izen-abizenak, posta-helbidea, harremanetarako telefonoa, ilustrazioaren izenburua, eta NANaren fotokopia, nortasun-agiririk baduzu.



6. Epaimahaia

Hona hemen epaimahaikideak:

- Gazteria, Emakume eta Genero Berdintasun arloko zinegotzi ordezkaria
- Berdintasun Teknikaria
- Haur Hezkuntza Zerbitzuko bi kide

Honatx ilustrazioak baloratzeko irizpideak: kalitatea, originaltasuna, sormena, eta argitasuna mezuaren transmisioan.

7. Sariak

Lehen saria: Ekilikua-ko jolas sorta bat.

Bigarren saria: Ekilikua-ko jolas bat.

8.

Epaimahaiaren erabakia eta sari banaketa

Epaimahaiak azaroaren 23an hartuko du erabakia.

Lehiaketan aurkeztutako ilustrazioak **Udalaren webgunean** argitaratuko dira, bai eta Gazte Programaren sare sozialetan ere. Epaimahaia irabazleekin jarriko da harremanetan sariak emateko.

9. Eskubideak

Lan sarituak Eguesibarko Udalaren jabetzapekoak izanen dira. Udalak badu eskubidea ilustrazio sarituak argitalpen eta foiletoetan erabiltzeko, betiere irabazi-asmorik gabe eta egilea nor den adierazita.

10. Onarpena

Lehiaketan parte hartzeak oinarriak eta epaimahaiaren erabakia onartzea dakar berekin.